



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea  
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

KAZETARITZA GRADUA  
IKASTURTEA 2021-2022

## OSTIRAL SANTUKO AKORDIOEK HEDABIDEETAN IZANDAKO TRATAERA

EGILEA: MIKEL GARCÍA MARTIKORENA  
ZUZENDARIA: IÑAKI ZABALETA URKIOLA

Data, 2022ko maiatzaren 12a  
Fecha, 12 de mayo de 2022

“Gratu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

## Aurkibidea

1.	Sarrera .....	5
2.	Hipotesiak eta helburuak .....	5
2.1.	Hipotesiak.....	5
2.2.	Helburuak .....	5
3.	Testuinguru sozio-politikoak .....	6
3.1.	Katolikoak eta Protestanteak: bi komunitate aurrez aurre .....	6
3.2.	Gatazkaren hasiera: biolentziaren lehen pausoak .....	7
3.3.	<i>The Troubles</i> .....	7
3.4.	Ostiral Santuko Akordioak.....	8
4.	Metodologia .....	9
4.1.	Metodoak .....	9
4.1.1.	Eduki analisia.....	9
4.1.2.	Interpretazio-markoen metodoa edo <i>framing-a</i> .....	10
4.2.	Unibertsoak .....	12
4.2.1.	Hedabideen unibertsoa.....	12
4.2.2.	Edukien unibertsoa .....	12
4.3.	Laginak.....	12
4.3.1.	Hedabideen lagina.....	12
4.3.2.	Egun eta eduki lagina .....	13
4.4.	Unitateak.....	13
4.4.1.	Analisi unitateak.....	13
4.4.2.	Neurketa unitatea .....	13
4.5.	Fidagarritasuna eta baliotasuna.....	13
4.5.1.	Fidagarritasuna.....	13
4.5.2.	Froga pilotua eta kodelarien arteko fidagarritasuna .....	14
4.6.	Kodetze fitxa.....	14
4.6.1.	ID .....	14
4.6.2.	Kazetaritza ekoizpen ezaugarriak.....	15
4.6.3.	Zer (albistearen edukia) .....	16
4.6.4.	Protagonistak .....	17
4.7.	Budd-en garrantzi eskala egokitua .....	19
4.8.	Framing edo enkadreak edo interpretazio-markoak .....	19
5.	Analisiaren emaitzak .....	21
5.1.	Eduki mota .....	21
5.2.	Rola, genero eta adina .....	25
5.3.	Akordioekiko jarrera.....	26
5.4.	Komunitateen arteko bizikidetasuna .....	29

5.5.	Akordioaren atribuzioa.....	30
5.6.	Akordioen eragin ekonomikoak .....	32
5.7.	Eduki esanguratsuena .....	32
6.	Ondorioak.....	33
7.	Bibliografia .....	34
8.	Eranskinak .....	36

## 1. Sarrera

Europa XX. mendean definitu beharko balitz, biolentziak bere aparteko lekua izango luke. Izan ere, kontinentea guda eta gatazka ezberdinen eszenatoki izan zen pasaden mendean, hamaika iraultza, gatazka eta guda eman baitziren. Irlandan, kontinentearen barnean egon ez arren, joera berdina eman zen. 1919ko independentzia gudarekin hasi eta 1998an Ipar Irlandako *The Troubles*en amaierara arte irlako biztanleria gatazkan murgildurik bizi izan zen.

1998an ematen zaio irlako iparraldean elkar bizi ziren bi komunitateen, Katolikoen eta Protestanteen, arteko gatazkari amaiera Ostiral Santuko Bake Akordioen hitzarmenarekin. Akordio hauek prentsan izan zuten trataera da Gradu Amaierako Lan honen egitekoa. Horretarako *ABC*, *Egin*, *The Guardian* eta *Irish Independent* hedabideek apirilaren 3tik 18ra argitaratutako egunkariak aztertu dira erpin ezberdinetatik; hala nola, akordioekiko jarrera, protagonisten rola, ondorio ekonomikoak edo akordioen atribuzioa.

Ikerketaren helburua akordioei eman zitzaizkien trataera ezagutzea da, bai nazioartean, baita Erresuma Batuan zein Irlandako Errepublikan ere. Egunkari jakin hauen aukeraketarekin lortu nahi izan dena da ikuspegi orokor bat lortzea, ideologia eta xedetalde ezberdinak baitituzte.

## 2. Hipotesiak eta helburuak

### 2.1. Hipotesiak

- Egunkari guztiak bake akordioen alde agertuko dira.
- Protagonistak, norbanakoak direnean, gizon helduak izango dira.
- *Egin* izango da bakarra emakumeen papera nabarmenduko duena.
- *ABC*k garrantzi nabarmena emango die Sinn Fein eta Irlandako Errepublikari bake akordioaren aurrerapenen esleipenean.
- Bake akordioa justifikatzeko, ondorio ekonomiko positiboak azpimarratuko dira. *Egin*en kasuan, halaber, bere izaera politiko-ekonomiko ezkertiarra dela-eta, ez die halako garrantzirik emango ondorio ekonomikoari. Horren beharrean, bizikidetasunak dituen onuretan jarriko du fokoa.
- Akordioaren esleipena *ABC*n eta *Egin*en antzekoa izango da, baina *Irish Independent* eta *The Guardian*en kasuan ezberdintasun argiak topatuko dira.
- *The Guardian* izango da terrorismoarekin lotutako kazetaritza pieza gehien izango dituen.

### 2.2. Helburuak

Lan honen helburua nagusia eremu geografiko eta testuinguru sozial ezberdinetan ezarrita dauden lau hedabidek Irlandako Ostiral Santuko Bake Akordioak nola jorratu zituzten ezagutzea da. Komunikabide hauen trataera orokorra jakin ahal izateko, aurretik zenbait helburu zehatzago bete behar dira. Hauen emaitzak esku artean izandakoan, garaian gaiarekiko egon zen ikuspegi globala lortzea da azken xedea.

Xede nagusia lortze aldera, Gradu Amaierako Lan honen helburuen artean hurrengoak daude:

1. Lau hedabideen jarrera akordioekiko ezagutzea. Hau da, alde edo kontra dauden.
2. Komunitate Katoliko eta Protestantearen arteko bizikidetasuna posible den edo ez komunikabideentzat.
3. Bake Akordioen protagonismoa eta hauek aurrera eramateko rola nori esleitzen dion hedabide bakoitzak ezagutzea.
4. Hedabideek Ostiral Santuko Bake Akordioek ondorio ekonomiko positiborik ekarriko zuen ustea zuten jakitea.

Azkenik, behin hedabide bakoitzean gaiari eman zitzaion trataera ezagututa, haien arteko ezberdintasunak baloratuko dira. Honen helburua da testuinguru eta ideologia ezberdinak kontuan izanda Ostiral Santuko Bake Akordioen trataeran ezberdintasun handirik egon zen edo ez jakitea.

### 3. Testuinguru sozio-politiko

Irlandako Ostiral Santuko Bake Akordioek amaiera eman zioten 30 urtez irlako iparraldean bizitako gatazkari. Izan ere, 1998ko apirilaren 10a hartzen dute historialariek *The Troubles* ezizenarekin ezagututako gatazkaren amaieratzat, 3636 hildako eragin zituen komunitateen arteko gatazka (Casanova, J., 2020). Gobernu Britaniarraren eta Irlandarraren arteko akordioa, Ipar Irlandako alderdi politiko gehien oniritziarekin eman zen.

*The Troubles*en hasiera 1968ko urriaren 5ean kokatzen den arren, Katolikoek eta Protestanteen arteko gatazkak 1920ko hamarkadan ditu bere sustraiak, Irlandako Errepublikaren independentzia lortu zenean. Izan ere, Ipar Irlandako gizartea ezberdina zen oso Errepublika osatzen duten konderriekin alderatuz gero.

#### 3.1. Katolikoak eta Protestanteak: bi komunitate aurrez aurre

Ipar Irlandako gatazkaren oinarritzko elementua erlijioa da. Irlandako Errepublika Erresuma Batutik atera zenean bere independentzia aldarrikatuz 1921ean, Errepublika berria osatzen zuten biztanleriaren gehiengoa Katolikoa zen. Ulsterrean edo Ipar Irlandan, baina, biztanleriaren bi heren Protestanteak ziren, Ingelesak bezala. Hori dela-eta, Erresuma Batuaren barnean mantentzea erabaki zuten, Londresekin Dublinekin baino harreman estuagoa baitzuten. Banaketa honen adibide dira Belfasten industria garatu zenean Liverpoolekin eta Glasgowekin zituela harreman ekonomiko gehienak eta ez Dublin edo Corkekin.

Protestanteak populazioaren gehiengoa izan arren, Katolikoek gutxiengo handi bat eratzen zuten, biztanleriaren herena osatuz. Bi komunitateen arteko bizikidetasuna ez zen inoiz oparoa izan. Baina, momentu hartatik, guztiz banandu ziren. Alde batetik, komunitate protestantea unionista zen; hau da, Irlanda batu bakar bat defendatzen zuten Erresuma Batuaren baitan. Errepublikak bere independentzia lortu ostean, iparraldeko konderriak Westminsterrek esandakoaren menpe mantentzearen alde egin zuten. Bestetik, Katolikoek hegoaldeko nahiekin bat egiten zuten, hau da, Irlanda batu baten alde zeuden Erresuma Batutik at. Hori dela-eta, Ipar Irlanda estatu ez-legitimotzat hartzen zuten.

Ezberdintasun hau, baina, ez zen soilik norbanakoen arteko harremanetan nabaritzen. Gizarte osoan nabaria zen komunitate protestantearen nagusitasuna.

Politikatik hasi eta enpresa publiko zein pribatuetan Katolikoak bigarren mailako biztanletzat jotzen ziren. Politika mugiezina zen, Unionistek (Protestanteak) irabazten zituzten boza gehienak. Sir James Craige, Ulsterreko lehen presidentea, 1921etik 40ra egon zen, eta hirugarrena, Sir Basil Brooke, hogeitaz egon zen boterean.

Lan publikoetan, eta bereziki goi karguetan, politikan zegoen jarraikortasuna mantentzen zen, ez baitzegoen ia Katolikorik. Enpresa handietan, Belfasteko ontziolatan esaterako, Katolikoek purgak egoten ziren komunitateen arteko gatazkak zeudenean. Banaketa hau ez zen soilik helduen artean gertatzen; haurrak zirenetik bi komunitateek bizi ezberdinak zituzten, eskoletan ez baitzegoen integrazio erlijiosorik. (McKittrick, D. eta McVea, D., 2012)

### 3.2. Gatazkaren hasiera: biolentziaren lehen pausoak

1920an, Erresuma Batuak lege bat onartu zuen non bi Irlandak banatzen ziren. Honek konfrontazioa eragin zuen bi komunitateen artean, eta kontuan izanda Irlanda guda zibil batean murgildurik zegoela, biolentziak gora egin zuen bortizki. Lehenengo bi urte haietan, 428 pertsona erail ziren, horietatik bi heren Katolikoak. Horrelako datuak ez ziren errepikatu 1969ko abuztura arte. Konfrontazioan oinarritutako politikak ezarri ziren Ipar Irlanda berri hartan, lubaki-guda eratuz, non mugimendurik ez zegoen ez Unionistengandik ezta Nazionalistengandik ere. Hamarkadetan zehar iraun zuen egoera honek. (McKittrick, D. eta McVea, D., 2012)

*In pass* hartan mantendu ziren gauzak 1968ko urrira arte. Garai hura gizartea aldatzeko joerak markatu zuten; hala nola, Pariseko maiatza, Pragako udaberria edo Amerikako Estatu Batuetako eskubide zibilen mugimendua. Azken mugimendu sozial hartatik hartu zuten inspirazioa Ulsterreko Katolikoek diskriminazioari aurre egiteko. 1968ko urriaren 5ean, Derryn, manifestazio bat antolatu zen Gobernuak aurrera zeraman etxebizitza-politikaren aurka, haien ustetan diskriminatzailea baitzen, Protestanteei errazago ematen baitzitzaien etxeak Katolikoei baino. Etxe bat edukitzea ez zen soilik garrantzitsua etxea beragatik, baizik eta, bozkatu ahal izateko, etxe baten jabea izatea beharrezkoa baitzen. Egun bat lehenago, urriak 4, Ipar Irlandako Gobernuak manifestazioa debekatu zuen, baina Katolikoek aurrera jarraitu zuten berarekin. RUCek, Ipar Irlandako polizia militarra, manifestazioa desegiten saiatu zen. Horretarako, urkanoiak erabili ziren, hamaika zauritu utziz. Hor hasi ziren *The Troubles*. (McLaughlin, D. et al, 2018)

Gatazken hasiera hartan, 1969ko abuztuan gertaturiko Bogsideko bataila nabarmenezkoa da, horren ondorioz sortu baitzen *new Irish Republican Army*. Katolikoek arabera, poliziak haien aurka jarduten zuen. Hortaz, ez zuten nahi indar Protestanteak haien auzoetan sartzea. Eskari honekin antolatu zituen eskubideen aldeko mugimenduak zenbait manifestazio. Baina, manifestazio hauek bi komunitateen arteko gatazka areagotu zuen. Alde bateko zein besteko etxeak erre ziren eta 8 hildako egon ziren Belfasteko Ardoyne auzoan. 1800 familiek haien etxeak utzi behar izan zituzten. Haietatik 1500 Katolikoak ziren. Hortik aurrera, gaur egunera arte mantendu izan diren barrikadak eta hesiak jarri ziren komunitateak banatu eta haien arteko liskarrak ekiditeko. (McKittrick, D. eta McVea, D., 2012)

### 3.3. *The Troubles*

Honek guztiak odolez busti zuen Irlandako iparraldean 30 urtez. Milaka pertsona hil ziren Protestanteen eta Katolikoek arteko liskarretan. Torturak eta epaiketarik gabeko espetxeratzeak ohiko bihurtu ziren. 1971ko lehen sei hilabetetan, adibidez, 2400 pertsona atxilotuak izan ziren. Urte hartan, 170 hildako utzi zituzten Gatazkek, erdia herritar katolikoak zirelarik (McKittrick, D. eta McVea, D., 2012). Bi komunitateetan talde

terroristak eratu ziren; haietatik famatuena, IRA berria, UDA eta *Ulster Volunteer Force*. Lehen, Katolikoa, eta, beste biak, Protestanteak.

Bi komunitateen arteko harremanak higatzen joan ziren, arestian aipatutako harresi eta hesiak Ipar Irlandako hirien geografiaren parte bihurtzeraino. Urteetako liskarrak egun bakarrean laburbildu daitezke: *Bloody Sunday*-n.

1972ko urtarrilaren 30ean 15000 nazionalista Derryko kaleetan zehar batu ziren manifestazioak legetik kanpo aitortzen zituen lege baten aurka egiteko. Erresuma Batuko armada eta unionistak manifestarien aurka egin zuten, bi aldeek kideen arteko liskarrak eratu. Gaur egungo informazioei esker jakin denez, 21 soldaduk manifestarien aurka egin zuten tiro; hamahiru manifestari hil ziren egun hartan armada britaniarraren esku. Gertakizun hark IRAren aldeko eta Protestanteen eta Erresuma Batuaren aurkako sentimenduak handitzea eragin zuen nazionalisten artean. (Blakemore, E., 2022)

Ipar Irlandan bakea 1998ra arte lortu ez zen arren, *The Troubles* iraun zuten bitartean hau lortzeko ekimenak eraman ziren aurrera. Haietatik garrantzitsua eta 1998ko akordioekin antzekotasun handien zuena 1973an eman zen Sunningdaleko Akordioa da. Akordio honek Asanblada berria ekarri zuen Ipar Irlandara, 72an desegin baitzen aurrekoa eta Erresuma Batuak zeukan boterea momentu hartan. Gobernu berria bi aldeetako politikariak, unionistak eta nazionalistak egon beharko ziren, Kristauek bizi zuten bigarren mailako trataera harekin bukatzeko asmoz. Akordioak urtebete iraun zuen soilik, Erresuma Batuko parlamentuan zeuden Ipar Irlandako hamabi diputatutik hamaikak haren aurka agertu zirelako. Horren ondorioz, bertan behera gelditu zen Sunningdaleko Akordioa. (McKittrick, D. eta McVea, D., 2012)

Sunningdaleko Akordioaren porrotak talde terroristen ekintzak aurrera jarraitzea eragin zuen. 1985ean, IRAk buruzagi britaniarren aurka egindako atentatu bat zela medio, Erresuma Batuak eta Irlandako Errepublikak Anglo-Irish akordioa sinatu zuten. Herrialdeen arteko harremanak hobetu eta Irlanda bateratu baten aukera zabaltzea ziren akordioaren xedeak, baina ez zen gustukoa izan ez nazionalistentzat ezta unionistentzat ere. (Blakemore, E., 2022)

Horrela hasi zuen Ipar Irlandako biztanleriak 1990ko hamarkada. Gobernuen aldetik bakearen aldeko ekintzak egon bazeuden arren, Ipar Irlandako herritarrak polarizaturik mantentzen ziren eta bi komunitateen kideen arteko liskarrak eguneguneko zerbait ziren. 1968an Derryn jaiotako mugimenduak, berdintasunean erroturiko bizikidetasuna babesten zuenak, bere helburuak betetzeko ahaleginean porrot egin zuen. Edo, agian, ez guztiz.

### 3.4. Ostiral Santuko Akordioak

Ostiral Santuko Akordioak 1998an sinatu ziren arren, horrelako prozesu baketzaile orok bezala, urteak pasa behar izan ziren lehen kontaktutik hitzarmena lortzeraino. Lehen pauso horiek 1993an eman zituen Erresuma Batuko Lehen Ministroa zen John Majorrek. Ipar Irlandan bakearen alde egindako deklarazio eta nahiek bidea zabaltu zuten prozesu baketzaile bati. Halere, historikoki ezin da esan biolentziaren bukaera 1997a baino lehen heldu zenik. Urte hartan IRAk su-etena ezarri zuen eta Ulsterreko alderdiek, George Mitchell senatari amerikarraren gidaritzapean, elkarrizketak eraman zituzten aurrera herrialdea bakean zegoela. (Blakemore, E., 2022) Irlandako Errepublikaren eta Erresuma Batuko Gobernuen rola garrantzitsua izan zen oso bake-elkarrizketa hauetan.

Ipar Irlandarako eskuordetza gobernu bat eratzea zen akordioaren helburua. Bertan, nazionalistek eta unionistek boterea partekatuko zuten. Gainera, hitzartu zen Ipar Irlandako eta Irlandako Errepublikaren gehiengoak nahi izanez gero, Ulsterrak Erresuma Batutik independentzia lortu zezakeela eta Errepublikarekin bat egin estatu berri batean. (Northern Ireland Assembly)



Akordioa hainbat printzipiotan dago oinarriturik: Gobernuak eta instituzio publikoek begirune bera izatea bi komunitateekiko; Ipar Irlandako Konstituziopeko estatua errespetatzea; Ipar Irlandako biztanleek britaniar edo irlandes bezala identifikatzeko, eta hala baieztatzea bi herrialdeetako administrazioek, jaiotza eskubidea izatea eta Erresuma Batuko zein Irlandako Errepublikako herritartasuna izatea. Gainera, konpromisuak hartu ziren segurtasunaren, poliziaren, atxilotuen eta armagabetzeen esparruetan.

Ostiral Santuko Akordioek hiru egitura politiko berri ezarri zituen. Lehenak, Ipar Irlandako Asanblada eta Exekutiboa osatzen du. Bertan, legeak ezarri eta erabakiak hartuko dira egunerokotasunari lotuak. Bigarrenak, Ipar-Hego instituzioak hartzen ditu bere baitan, Ipar-Hego Ministro Kontseilua eta Ipar-Hego errendimendu kabineteak. Instituzio hauen helburua da bi Irlanden arteko kooperazioa sustatzea. Hirugarren egituraren xedea da Erresuma Batuaren eta Irlandako Errepublikaren arteko kooperazioa eta harremanak sustatzea. Horretarako, Ekialde-Mendebalde instituzioak eratu ziren: *British-Irish* Kontseilua eta *British-Irish* Gobernu arteko Konferentziak. (Gov.uk)

Arestian aipatu bezala, Amerikako Estatu Batuak (George Mitchellen figurarekin), Erresuma Batuak eta Irlandako Errepublikak rol nabaria jokatu zuten hitzarmena lortzeko elkarrizketetan. Halere, Ipar Irlandako bi alderdi nabarmendu behar dira elkarrizketetan, Ipar Irlandako bozkatuenak baitziren, eta, hortaz, Ulsterraren nahiak definitzen zituztenak. Hauek bakea nahi izatea eta akordioaren alde egitea ezinbestekoa zen, bestela *Sunningdale* bezala bukatu zezakeen akordioa. Bi alderdi hauek ziren: *Ulster Unionist Party* eta *Social Democratic and Labour Party*. Lehenak, David Trimble zuen buruzagi, eta, bigarrenak, John Hume. Bake akordioetan izandako paperagatik, 1998ko Bakearen Nobel Saria irabazi zuten biek. Beste zenbait alderdik hartu zuten parte baita elkarrizketetan ere. Hala nola, *Sinn Féin* edo *Progressive Unionist Party*. (Northern Ireland Assembly)

Ostiral Santuko akordioak 1998ko maiatzaren 22an izan ziren onartuak erreferendum bidez mugaren bi aldeetan; 1999ko abenduaren 2an jarri ziren martxan behin betiko. Komunitateen arteko liskarrak eta gatazkak denboran zehar mantendu ziren arren, geroz eta gutxiago izan dira, bizikidetasuna eta kooperazioak irabaziz.

## 4. Metodologia

### 4.1. Metodoak

Gradu Amaierako Lan honetan, Britainia Handiaren, Ipar Irlandaren eta Irlandako Errepublikaren artean sinatutako Ostiral Santuko Akordioen analisi historikoa egingo da alde batetik. Bestetik, gertakizunaren inguruan lau egunkarik (*The Guardian*, *Irish Independent*, *ABC* eta *Egin*) argitaratutako eduki informatibo zein iritzizkoak ikertuko dira hainbat metodo (eduki analisia eta interpretazio-markoen metodoa) eta iker-alor ezberdinen bitartez (protagonistak, interpretazio-markoak eta genero periodistikoak).

Ikerketaren oinarria egunkarien analisiaren ostean lortutako datu kuantitatiboak izango dira. Hauek abiapuntutzat izanda, interpretazio-markoen eraikuntzaren inguruan jardungo da.

#### 4.1.1. Eduki analisia

Gizakien eguneroko harremanetan, material komunikatzailea eratzen da. Hauek esan edo idazterako orduan, helburuak, jarrerak, iritzia, interpretazioak eta abar adierazten dira. Eduki analisiarekin hauen azterketa bideratu daiteke. (Juaristi, 2003) Ikerketa metodologia hau ez da ageriko edukien deskripzio soilak egitera mugatzen, bere

helburuetako bat hori baldin bada ere, ageriko eta ezkutuko edukien inferentzia egiten du baita ere (Zabaleta, 1997) . Honi esker, azterketaren emaitzak ez dira informazioaren azalean geratzen, haratago doaz; ikerketari osotasuna emanaz.

Patxi Juaristiren (2003) arabera, eduki analisiaren bitartez, egunkariaren ekoizpenaren parte direnen “intentzio, jarrera eta berezitasunak” ezagutu daitezke eta egunkariaren irakurleen berezitasunak ezagutu. Edozein eduki analisisik lau ezaugarri izan behar ditu:

- Objektibotasuna: testuen kodifikazio eta azterketa zehatza egin ahal izateko, ikerlariaren subjektibotasuna alde batera utzi behar da. Hau ahalbidetzeko, erregistro kategoriak ahalik eta era zehatzenean definitu behar dira.
- Sistematizazioa: aztergai diren testuen eta datuen aukeraketa aurretik adierazitako irizpideen arabera egingo da. Gainera, ikerketa osoan zehar berdin jardungo da.
- Zenbaketa: aztertutako testuetan ikertuak izaten ari diren berezitasunen maiztasunari balio numerikoa eman behar zaio. Izan ere, maiztasunak adieraziko du berezitasun horren garrantzia igorlearentzat.
- Ageriko edukia: eduki analisiak testuetan dagoena hartzen du oinarritzat ikerketa egiteko; hortaz, presentzia adierazten da. Halaber, eduki batzuen presentzia adierazteaz gain, edukian egon daitezkeen gabeziak plazaratzeko balio dezake.

### **Ikerketa honetan eduki analisiaren papera.**

Eduki analisiaren bidez testu periodistikoaren zenbait ezaugarri eta alderdi aztertuko dira Gradu Amaierako Lan honetan. Besteak beste, protagonistak, eduki mota, iturri mota edo informazioa emateko era aztertuko dira teknika honen bitartez.

#### 4.1.2. Interpretazio-markoen metodoa edo *framing*-a

Berria testu edo ikus-entzunezko eraikuntza bat da, zeinek mezuaren eraginpean dauden hartzailleentzako interpretazio-esparru bat eskainiko duen. Interpretazio-markoek mintzo gara kazetariak gertakariaren esparru jakin batzuk aukeratzen dituelako beste batzuen gainetik jarritz, arazoa definitzen eta baloratzen, arrazoiak zehazten eta arazoari irtenbidea eskainiz. (Ardèvol, 2015; Entman, 1993)

*Framing*-a gaia edo gertakizuna deskribatu eta plazaratzeko era da. Izan ere, interpretazio-markoak identifikatzerakoan, ez da berriak ematen duen informazioan erreparatu behar, baizik eta honen barnean txertaturik egon daitezkeen ezaugarri konnotatiboetan (Mercado eta Sánchez, 2013). Hainbat ikerlarik, adibidez Entmanek (1993), haien lanetan *framing*-ak bi talde nagusitan banatzen dituzte: “norbanakoaren *frame*-ak” eta “hedabideen *frame*-ak”. Lehenengoa, informazioa jaso duen pertsonak bere buruan sortu dituen ideiak dira, geroago beste informazio piezak identifikatzeko eta sailkatzeko erabiliko dituen. Hedabideek eratutako interpretazio-markoak aldiz, kazetaritza testuetan errealitatearen alderdi batzuk beste batzuen gainetik jartzean sortzen dira.

Hamaika interpretazio-marko daude eta ikerlari bakoitzak ikerketarentzat komenigarrienak zaizkionak erabili ditzake. Halere, interpretazio-markoen inguruko ikerlariek zenbait *frame* zehatz eta erabilgarri proposatu dituzte urteetan zehar. Horietatik

esanguratsuen Sometko eta Valkenburg (2003) ekarpena dago. Ikerlari hauek, bost interpretazio-marko nagusi proposatu zituzten haien ikerketarako, eta hainbatek haien lanerako hartu izan dituzte. Hauek dira: ardura atribuzioa, gatazka, giza interesa, ondorio ekonomikoak eta moralitatea.

Proposamen hauek erabilgarriak izan daitezkeen arren, ikerketa lan sakon bat egiteko aproposagoa da gaira zehazki bideratuta egongo diren markoak erabiltzea. Izan ere, informazioa eskuragarri bihurtzeko era bakarra, mezua ulertzea ahalbidetuko duen interpretazio marko bat sortzea da. (Ardèvol, 2015) Hortaz, kazetaritza testu orok bere interpretazio-marko propioak izango ditu.

Interpretazio-markoak edo *frame*-ak eratzerako orduan eragina hiru iturri ezberdinetatik dator. Aurrena, kazetariak informazioa ulerterraza egiteko eraten dituztenak daude; hau kazetariaren ideologiak, lan egiteko erak edota informazioarekiko duen jarrerak eragin dezake. Bigarrenik, hedabidearen lan egiteko era dago. Bertan, ildo ideologikoa egongo litzateke. Azkenik, hedabidetik at dauden aktoreek eragindakoak daude, alderdi politikoak edo erakundeak, esaterako. Hau gertatzen da, batez ere, kazetariak informazioa lantzen ez dutenean eta hitzez hitz protagonistak esandakoa argitaratzen dutenean albiste bezala. (Scheufele, 1999)

### **Ikerketa honetan interpretazio-markoen erabilera.**

Gradu Amaireko Lan honen gaia Irlandetako Ostiral Santuko Bake Akordioak eta haien trataera medioetan izanik, hedabide ezberdinek gaiaren inguruan eratu zituzten interpretazio-markoek garrantzi handia hartzen dute. Ikusienez, *framing*-ari esker hedabideek haien ideiak plazaratzen dituzte, haien ildo ideologikoarekin bat egiten duten gertakizunetan fokua jarriz eta besteak alde batera utziz. Joera hau are eta nabariagoa da gatazka politiko batean, bi aldeetako bati protagonismo handiagoa emanaz eta bere gatazkarekiko jarrera azpimarratuz.

Gauzak horrela, ikerketa honetan gatazka politiko-sozial honetan eragina izan zuten eta bi Irlandetako gizarteak egun haietan banandu zituzten jarrerak aztertuko dira. Hauek, Ostiral Santuko Akordioekiko eta hauen ondorioekiko hedabideek eta eragile sozialek izandako jarreraren inguruan izango dira.

- Bake akordioekiko jarrera: Nazioartetik bake akordio bat gehienetan positibotzat hartzen den arren, herrialde barruan ez da beti horrela jasotzen. Izan ere, hainbat hamarkaden ostean bi aldeek pairatutako sufrimendu dena sinadura batzuetan amaitzea ez da guztientzat nahikoa izaten. Normalean alde batentzako gutxi da besteak eman behar duena, eta alderantziz. Irlandan kasuan, akordioak baieztatzeko biztanleek erreferendum batean bozkatu behar zuten bezala bi aldeetako jarrerak hedabide ezberdinetan agertzea normala zen.
- Bizikidetasuna: Kristauen eta protestanteen arteko harremana gatazkatsua izan da beti Ipar Irlandan, komunitate bakoitza bere bizitza bestea gabe eginez. Akordioen helburuetako bat muga horiek gainditzea zen, Ipar Irlandako biztanleria oso errespetatuz eta batuz. Joko-lege aldaketa honek aldeko eta kontrako erantzunak izan zituen, batez ere unionistengandik, boterea eta abantailak galtzearen beldur zirelarik.

- Atribuzioa: Edozein bake akordioetan hamaika aktorek hartzen dute parte, eta bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu. Akordio hauek, gehienetan, ekarpen hauen eztabaiden ondoriozko batuketa bat izaten da. Halere, hedabide bakoitzaren ildo ideologikoaren arabera bake prozesuko aktore batzuei edo besteei emango zaizkie akordioen lorpenaren atribuzioa, besteek egindako ekarpenak alde batera utzita eta garrantzia kenduz.
- Ondorio ekonomikoak: Ostiral Santuko Bake Akordioen osteko gizartearen berregituratzeak zenbait aldaketa ekarri zituen berarekin. Haien artean Irlandan arteko gatazkaren amaierak eta terrorismoarekin bukatzeak ekarri zitekeen ondorio ekonomikoak. Hortaz gain, katolikoak Ipar Irlandako ekonomian txertatzeak ondorio ekarriko zituen berarekin, batzuentzat positiboak eta beste batzuentzat negatiboak.

## 4.2. Unibertsoak

### 4.2.1. Hedabideen unibertsoa

Ikerketa honetan, gaia eta bere testuingurua kontuan izanik bi multzotan banandu dira ikertuko diren egunkariak. Alde batetik, bake akordioetan interes zuzena zuten bi estatuen hedabideak egongo dira; hau da, Britania Handikoak eta Irlandako Errepublikarenak. Bestetik, gure eremu geografikora gerturatzeko eta testuingurua antzekoa zenez (ezberdintasunak zeuden arren), Espainiar Estatuko (Madrilen argitaratuak batez ere) eta Euskal Herriko hedabideak hartuko dira kontuan.

Egunkaritzat hartuko dira egunero edo astean sei aldiz plazaratzen diren argitalpenak. Ostiral Santuko Akordioak eman ziren momentuan, gaur egun mantentzen den maiztasuna ematen zen; hori dela-eta, aurreko definizioa balizkoa da Gradu Amaierako Lan honetarako.

### 4.2.2. Edukien unibertsoa

Edukien unibertsoari dagokionez, paperean argitaratutako eduki oro hartuko dira kontuan ikerketa egiteko. Hau da, egunkarietako orrialde guztiak begiratuko dira Ostiral Santuko Akordioekin zerikusia duten albisteak bilatu eta ikerketan erabiltzeko.

Denboraren unibertsoari dagokionez, Ostiral Santuko Akordioak 1998ko apirilaren 10ean sinatu zirenez, 10a eta 11a T0tzat hartuko dira. Lana egiteko, aurreko zazpi egunak eta ondorengo zazpiak hartuko dira. Hortaz, denboraren unibertsoa 1998ko apirilaren 3tik 1998ko apirilaren 18ra artekoa izango da.

## 4.3. Laginak

### 4.3.1. Hedabideen lagina

Arestian azaldu bezala, ikerketa honetan erabiliko diren hedabideak bi bloketan banandu daitezke lurraldetasunaren arabera. Alde batetik, Irlandan arteko bake akordioak eragin zuzena duten bi herrialde daude: Irlandako Errepublika eta Britania Handia. Bestetik, Espainiar estatua eta Euskal Herria daude. Azken hauen hedabideen trataera interesgarria da; izan ere, garai hartako testuinguru sozial eta politikoak antzekotasunak ditu ETArekin izatea zela-eta.

Lurraldetasun hau galdu gabe, hedabideak aukeratzeko orduan haien ildo ideologikoa hartuko da kontuan. Bloke bakoitzeko hedabideak haien artean ezberdintasun

ideologikoak izango dituzte. Hau da, bat kontserbadorea izatea eta bestea aurrerakoiagoa edo ezkertiarra.

Laginerako aukeratutako egunkariak, ildo ideologikoak eta beraien jaiotze eta amaiera/itxiera datak hurrengo hauek dira:

- Egin (1977-1998); ezkertiarra eta independentista (Caminos, Armentia eta Marín; 2013)
- ABC -Madrileko edizioa- (1903-gaur egun); kontserbadore eta katolikoa (Pizarroso; 2010).
- The Guardian (1821-gaur egun); ezkertiarra eta liberala. (Tsang, 2018)
- Irish Independent (1905-gaur egun); kontserbadorea eta katolikoa. (McGarry, 2002)

#### 4.3.2. Egun eta eduki lagina

Aurreko puntuetan azaldu den bezala 1998ko apirilaren 3tik 1998ko apirilaren 18ra arte argitaratutako egunkariak hartuko dira kontuan. Alabaina, aztertutako egunkari denek ez zituzten argitalpenak plazaratu denbora tarte osoan zehar, batzuk igandetan argitalpenik ez baitzuten.

Edukiari dagokionez, antzeko metodologia jarraitzen duten ikerketek egun bakoitzeko pieza kopuru zehatz bat soilik kontuan hartzea erabakitzen dute. Baina, ikerketa honetan denbora tarte oso zabala ez denez, egunkarietan Ostiral Santuko Akordioen inguruan edo zeharka lotura dutenak (IRAko atentatu bat, Ipar Irlandako alderdi politiko baten agintariari egindako elkarrizketa bat eta abar) hartuko dira kontuan.

### 4.4. Unitateak

#### 4.4.1. Analisi unitateak

Ikerketa honetan analisi-unitatea pieza osoa izango da. Hau da, ez da soilik izenburua edo *lead*-a hartuko azterketa egiteko, baizik eta albiste edo artikulua bere osotasunean.

#### 4.4.2. Neurketa unitatea

Analisi unitatea definiturik egotea ez du esan nahi neurketa unitatea definituta dagoenik. Izan ere, prentsaren azterketa historikoetan ohikoa da analisi unitate bakar batean eduki-unitate bat baino gehiago egotea. Hau da, albiste batean zenbait protagonista edo eduki-unitate topatzea.

Adibidez, iritzi artikulua batean politikariek izandako papera analizatzen da. Baina, bukaeran, etorkizunean gazteei eskolatan Ipar Irlandan gertatutakoa ondo azaldu behar zaiela esaten da, egoera berriz ez errepikatzeko eta bakea mantentzeko. Kasu honetan, lehenengo eduki-unitatea politika den arren, beste bat topa daiteke: hezkuntza. Horrelako kasuetan biak hartuko dira kontuan.

### 4.5. Fidagarritasuna eta baliotasuna

#### 4.5.1. Fidagarritasuna

Edozein ikerketa metodok eta erabilitako neurketa-prozedurak fidagarritasuna izan behar du. Funtsezko kontzeptu honek esan nahi du ikerketa edo neurketa bera

errepikatuko balitz, emaitza berdinak edo berdintsuak lortuko liratekeela. Beraz, ondoriozta liteke aplikatutako metodologia hori fidagarria dela (Zabaleta Urkiola, 1997).

Bi fidagarritasun mota bereizten dira: kanpo eta barne fidagarritasuna. Lehenean, bi denbora-une desberdinetan (t1 eta t2), eduki osoaren lagin bat neurtzen da eta, emaitza berdinak eta kontsistenteak lortzen badira, orduan esan daiteke metodo edo neurketa-tresna horrek kanpo fidagarritasuna duela. Bigarrenean, denbora berean edo bertsuan (t1) egiten da neurketa edo kodetzea, baina unibertso bereko bi subjektu-lagini aplikatzen zaie, eta bi lagin hauen emaitzak berdinak edo berdintsuak badira, orduan esan daiteke neurketa-tresna horrek barne fidagarritasuna duela eta, beraz, emaitzak fidagarriak direla.

Barne fidagarritasunaren bariante bat izaten da unibertso beraren lagina bi edo hiru kodelari independentek kodetzea eta kodelarien arteko adostasun maila egiaztatzea. Argibide modura, kontsideratzen da %90etik gorako fidagarritasuna edo erabaki-adostasuna egon behar dela kodelarien artean, metodo bat fidagarria dela adierazteko (Wimmer, R. eta Dominick, J., 2010).

#### 4.5.2. Froga pilotua eta kodelarien arteko fidagarritasuna

Ostiral Santuko Akordioaren inguruko ikerketa honetan, metodologia fidagarria den ebaluatzeko froga pilotu bat egin da. Horretarako, aurreneko pausua kategoria sistema espezifikoak prestatu dira haien lanerako definizioekin. Definizio hauek Gradu Amaierako Lanaren tutorearekin berrikusi ostean, kazetaritza piezen laginketaren froga pilotua egin da.

Froga honetan hiru kodelarik hartu dute parte: lan honen egileak eta beste bi kodelari independente. Guztiek lau pieza kodetu behar izan dituzte eta hau egin ostean, emaitzak konparatu dira. Emaitzak parekoak izan dira oso, %96ko adostasuna lortuz; maila akademiko egokia dena eta metodologiaren fidagarritasuna adieraziz.

Normala den bezala, lehenengo froga honek balio izan du kodetze fitxak izan zitekeen arazoei (erantzuteko aukera gutxi, esaterako) konponbidea emateko, eta lanerako definizioei alde praktikoago baten barruan egokitzeke.

### 4.6. Kodetze fitxa

#### 4.6.1. ID

##### 4.6.1.1. Zenbakia

Aztertuko den kazetaritza pieza bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio metodologia errazte aldera. Ordena egunkariaren eta dataren arabera izango da. Hortaz, lehenengo ABCrenak joango dira, ondoren *Eginenak*, *The Guardianenak* eta, azkenik, *Irish Independentenak*. Egunkariaren barruan ordena kronologikoa izango da.

##### 4.6.1.2. Data

Kazetaritza pieza bakoitza argitaratuta doan egunkariaren data idatziko da atal honetan.

##### 4.6.1.3. Egunkaria

Zer egunkaritan argitaratu zen pieza bakoitza adierazi beharra dago bere azterketa egin ahal izateko.

#### 4.6.1.4. Hizkuntza

Nazio ezberdinetakoak izanik, hizkuntzak paper garrantzitsua joka dezake mezuak komunikatzerako orduan. Gainera, *Eginen* kasuan argitaratutakoak gazteleraz zein euskaraz idatzitakoak izan daitezke.

#### 4.6.1.5. Atala

Identifikazioaren sail honetarako kontuan hartuko da aztertutako pieza egunkariak zein sailetan kokatu duen: ekonomia, nazioarte, kirola, iritzia eta abar.

### 4.6.2. Kazetaritza ekoizpen ezaugarriak

#### 4.6.2.1. Egilea (kazetaria, erredakzioa, agentzia)

Edozein informazio edo iritzi artikuluk bere egilea du, gehienetan kazetari bat. Hala ere, pieza denak ez doaz kazetariaren izenarekin sinatuta. Esaterako, informazio agentzia batetik etorri den informazioa baldin bada eta bere horretan argitaratuz gero, ohikoena da *agentzia* edo informazio agentziaren izenarekin (*EFE*, esaterako) sinatzea. Berdina gertatzen da informazio orokor batzuekin, kazetari bakar bati ez zaizkionak esleitzen eta erredakzio osoaren izenpean argitaratzen dena, edo editorialekin, sinatu gabe doazela. Ikerketa honetan, editorialak erredakzioari esleituko zaizkio

#### 4.6.2.2. Sinatuta

- Bai
- Ez

#### 4.6.2.3. Argazkia eta testua

- Testua:  
Atal honetan sailkatuko dira soilik testua daramaten kazetaritza piezak. Hau da, titulua, azpitulua (ez beharrez) eta *corpusa* daramaten piezak sartuko dira hemen.
- Testua eta argazkia:  
Atal honetan, aldiz, testua (aurreko puntuan azaldu bezala) eta irudia (argazkia, marrazkia eta abar) bere baitan dituzten kazetaritza produkzioak joango dira. Infografiaren kasuan, egonez gero, hemen sailkatu beharko dira.
- Fotoalbistea:  
Fotoalbisteari dagokionez, ikerketan atal honen barruan albiste edo iritzi genero bat sailkatzeko, irudia (argazkia edota marrazkia) eta titulua izan ditzake soilik. *Corpusa* baldin badu, sarrera motz bat izan arren, “Testua eta argazkia” atalean sailkatu beharko da.

#### 4.6.2.4. Informazio mota

- Albistea:  
Albistea informazio generoen oinarritzko kazetaritza unitatea da. Gertakizun baten narrazioa da, normalean garrantzitsuenetik interes orokor gutxiena duen kontaketa eginez. Titulua, azpitulua eta *corpusa* ditu bere baitan, besteak beste. Guztiz informatiboa den kazetaritza generoa da, hau da, ez du kazetariaren iritzirako lekurik bere baitan. Azken hau izango da ikerketa honetan ezaugarriarik erabilgarriena beste genero batzuegandik ezberdintzeko.
- Kronika:  
Albistean gertatzen den bezala, gertaera baten narrazioa egiten da kronikan. Objektibotasuna bilatzen den arren, interpretaziorako lekua dago genero honetan,

albistean ez bezala. Kazetariak jakintzat jotzen ditu gertaeraren datu nagusiak eta kontakizunaren lekukotza zuzena eskaintzera fokuratzen da (Berria estilo liburua).

- **Erreportajea:**  
Erreportajea informazio (edo interpretazio) genero bat da. Bertan kazetariak gaia era objektiboan eta sakon aztertzen du, eta gehienbat protagonisten aipuak estilo zuzenean daude idatzita. Erreportajeen jorratzen diren gertaerak ez dute zertan gaurkotasunarekin zuzenean loturik izan behar; halere, zerbait berria eskaini behar diote irakurleari; enfoke bat, esaterako. Kazetaria kontatzen diharduen gertaera eta egitatei buruzko epairik eta iritzirik eman gabe idazten du (Berria estilo liburua).
- **Zutabea:**  
Kazetaren kolaboratzaileek idazten duten iritzi generoa da. Bertan jorratzen den gaia, normalean, gaurkotasunarekin estuki lotuta dago (Berria estilo liburua).
- **Editoriala:**  
Iritzi generoetako testu mota honetan hedabidearen ildoaz azaldu ohi da (Berria estilo liburua). Genero honen ezaugarri nabariena sinatu gabe argitaratzen dela da.
- **Elkarrizketa:**  
Erreportajeen kasuan gertatzen den moduan, normalean elkarrizketak informazio generoen barruan daude, kazetariak ez baititu elkarrizketatuaren hitzen gaineko komentariarik egiten, kasu horretan interpretazio elkarrizketa baten aurrean egongo ginateke. Elkarrizketa informatiboetan kazetariak elkarrizketatuaren hitzak bere horretan plazaratzen ditu gaurkotasuna eta interes orokorra duen gai baten inguruan (Berria estilo liburua).

- **Beste bat**

#### 4.6.3. Zer (albistearen edukia)

##### 4.6.3.1. *Eduki mota*

- **Ekonomia:**  
Albistearen edukia ekonomiaren barnean sailkatuko da ekonomiarekin zuzenean loturik dauden gaiak jorratzen baditu kazetaritza lanak. Hau da, merkatuaren aldaerak, familien gaitasun ekonomikoa, ekintzek eragingo dituzten gastu ekonomikoak edota bakeari esker herrialdearen ekonomia gora edo behera egingo duela. Hauek normalean egunkarien ekonomia sailean joaten diren arren, ez du beharrez horrela izan behar sailkapena egiteko.
- **Politika:**  
Edukia politikaren barnean atalkatzen den edo ez definitzea zaila da oso. Izan ere, beste edozein aukera (ekonomia, bakea, manifestazioak...) arrazoi edo ondorio politikoak izan ditzake bere atzean. Hori dela-eta, lan honetan politikaren barnean sailkatuko dira hurrengo gaiak jorratzen badira: nazioarteko harremanak beste herrialdeen gobernuekin, parlamentuko bozketak, presidentziarako edo parlamenturako hauteskundeak, gobernu batek aurrera eramango dituen neurrien zabalkundea (hau da, oraindik aurrera eraman ez direnak), eta oro har, alderdi eta lider politikoaren adierazpenak, batez ere aurreko gaien inguruan baldin badira.



- **Hezkuntza:**  
Hezkuntzaren barnean atalkatuko dira hezkuntzari zuzenean loturiko gaiak jorratzen badira. Adibidez, albiste batean aurrerantzean Bake Akordio hauek nola lortu diren eskoletan irakastea beharrezkoa izan beharko zela adierazten badu talde politiko batek edo iritzi artikulua batean hezkuntza metodoa aldatu behar dela bi Irlandena parekoa izateko baieztatzen bada, atal honetan sartuko lirateke.
  - **Manifestazioak:**  
Manifestazio bat, “bilera publikoa, normalean eremu irekian eta mugimenduan da. Bilera horretan, bertaratutakoek zerbait eskatzen dute edo zerbaitengatik protesta egiten dute”(RAE). Pieza bat manifestaziotzat hartuko da gai nagusiko gertaera definizio honen barruan sartuz gero.
  - **Bakea:**  
Bakea, biolentziaren bukaera izango da lan honetan. Hortaz, bakean sartuko dira ekintza oro zuzenean biolentziarekin bukatzeko balio dutenak. Adibidez, talde terrorista baten ekintza armatuaren bukaera edo gizarteko talde baten segurtasuna bermatuko duten ekintzak. Ekintza hitza da garrantzitsuena definizio honetan, zeren proposamen politikoak, bakearekin zerikusia duten arren, politika dira.
  - **Terrorismoa:**  
Ikerketa honen sailkapenerako terrorismotzat hartuko dira talde armatuak (IRA, ETA, UDA eta abar) eta haien ekintzak zuzenean jorratzen dituzten kazetaritza idatziak. Talde hauen ekintza armatuen bukaerak, halaber, bakea atalean joango dira.
  - **Beste bat**
- 4.6.4. Protagonistak
- 4.6.4.1. *Protagonista kolektibotasuna*
- **Norbanakoa**  
Gertakizunaren protagonismoa pertsona bakar bati esleitzen zaionean eta ez talde oso bati protagonista norbanako bezala sailkatuko da. Adibidez, “Irlandako presidentearen arabera...” agertzen denean, “Irlandako Errepublikako Gobernuaren arabera...” baino.
  - **Kolektiboa**  
Gertakizunaren protagonismoa erakunde oso bati esleitzen zaionean eta ez pertsona bakar bati sailkatuko da protagonista kolektibo bezala. Hau da, “Irlandako Errepublikako Gobernuaren arabera...” agertzen denean “Irlandako presidentearen arabera...” beharrez kolektibotasun baten aurrean egongo ginateke. Berdin gertatzen da erakunde edo mugimendu sozialekin, bati baino talde osoari esleitzen bazaio eginkizuna kolektibizazio izango da.
  - **Biak**  
Albiste berdinean bi kasuak gertatzen direnean.

#### 4.6.4.2. *Rola/funtzioa*

- **Politikoa:**  
Bizitza politikoa eta norbait politikoa den edo ez definitzea zaila izan daitekeenez, ikerketa honetan politikotzat joko dira soilik, esfera politiko altuenean dihardutenak; hau da, erraz alderdi politiko batekin lotu ahal direnak. Adibidez, Sinn Feineko buruzagia, Unionisten alderdiko alkate bat, herrialde bateko presidentea eta abar. Gainera, alderdi politiko osoak kontuan hartuko dira baita ere sailkapen honetan. Hauek aurkitu ahalko dira, alderdi bezala adierazpenak egiten dituztenean, esaterako.
- **Apaiza:**  
Irlanden arteko gatazkan erlijioak paper garrantzitsua jokatu zuenez, posible da informazio pieza batean baino gehiagotan apaizak edo eliz-gizonak agertzea protagonista bezala. Hauen sailkapena egiteko ez da haien erlijioa kontuan hartuko, bakarrik haien funtzio nagusia hori izatea eta ez politikan aritzea, Ian Pasleyrekin gertatzen dena: apaiza izan arren bere funtzio nagusia Bake Akordioen prozesuan Unionisten buru izatea baitzen.
- **Erakundeak:**  
Gradu Amaierako Lan honetan protagonistak erakundeen atalean sailkatuko dira erakunde oso bati (UNESCO, NATO eta abar) edo bertako kargu bati protagonismoa esleitzen zaionean.
- **Herritarra:**  
Herritarren atalar dagokionez, protagonistak herritartzat sailkatuko dira informazioari egiten dioten ekarpena soilik Irlandan, Britania Handian, Espainian edo Euskal Herrian bizitzea baldin bada. Hau da, egiten dituzten ekarpenak haien bizitokian bizitakoen inguruan oinarriturik badaude eta ez haien lanbide edo gizartean duten eraginagatik.
- **Aditua:**  
Ikerketa lan honetan aditutzat joko dira, albistean, erreportajeetan edo elkarrizketan jorratzen den gaiaren inguruko ezagutza handia duen pertsona. Adibidez, Bake Akordioek izango duten ondorio ekonomikoen inguruko albiste batean, protagonista ekonomialari bat baldin bada, atal honen barruan sailkatuko litzateke.
- **Talde terrorista:**  
Talde terroristatzat hartuko dira nazioartean horrela identifikatu ziren taldeak. Adibiderik argienak IRA eta UDA diren arren, aztertutako kazetaritza piezan espresuki terroristatzat hartzen diren taldeez hitz egiten bada sailkapen honen barruan egongo lirateke.
- **Beste bat**

#### 4.6.4.3. *Adina*

- Haurra (-15)
- Gaztea (16-29)
- Heldua (30-69)

- Adinekoa (+70)

- Ezin:

Hainbat kasutan ezingo da jakin protagonistaren adina, protagonista pertsona talde bat denean batez ere.

#### 4.6.4.4. *Sexua*

- Gizona
- Emakumea
- Beste
- Ezin:

Hainbat kasutan ezingo da jakin protagonistaren sexua, protagonista pertsona talde bat denean batez ere.

#### 4.7. Budd-en garrantzi eskala egokitua

Hamaika metodologia daude egunkarien informazioa aztertzeko; batzuk mende osoak iraun dituztenak. Halere, hauek ez dira beti guztiz zehatzak partzialitatea aztertzerako momentuan. Hori dela-eta, Richard Buddek garrantzi eskala bat eratu zuen hau ikertze aldera. Bere ikerketak egin ostean tratamendu informatiboaren faktore nabarmentzaile modura hurrengoak agertu ziren: titularraren tamaina, albistearen kokapena orrialdean, albistea agertzen zeneko orrialdea, argazkien erabilera eta albistearen luzeera edo espazioa (Zabaleta, 1997).

##### 4.7.1. *Titularra*

- 1-2 zutabe= 1pt
- +2 zutabe= 2 pt

##### 4.7.2. *Kokapena orrialdean*

- Goialdea= 2pt
- Behealdea= 1pt

##### 4.7.3. *Hartutako espazioa (zutabeen altueraren arabera)*

- 1/4: 1pt
- 2/4: 2pt
- 3/4: 3pt
- 4/4: 4pt

##### 4.7.4. *Orrialdea*

- Portada= 3pt
- Bakoitia= 2pt
- Bikoitia= 1pt

##### 4.7.5. *Orrialde kopurua*

1pt orrialde bakoitzeko

#### 4.8. Framing edo enkoadreak edo interpretazio-markoak

##### 4.8.1. *Bake-akordioen alde*

Irlanden arteko Bake Akordioen inguruan iritzi ezberdinak sortu ziren garaian. Hori dela-eta, ikerketan honetan aztertuko dira hedabideek pieza bakoitzean honen

inguruan zuten jarrera. Hau positiboa baldin bada, hau da, akordioen alde argi agertzen badira BAI-n sartuko lirateke, aurka egongo balira EZ-n. Jarrera ez bada ez positiboa ez negatiboa, hau da, bi aldeei garrantzia ematen bazaie pieza informatiboan eta ez bada baten aldeko hauturik egiten, NEUTROA dela esango da. Ez bada bake akordioen inguruko epairik ematen, ezta inoren iritzirik adierazten EZIN-en atalkatuko litzateke.

- Bai
- Ez
- Neutro
- Ezin

#### *4.8.2. Bake-akordioaren aldeko jarrera baieztatzen duten hitz edo esaldi gakoak*

- Honi dagokion zutabearen idatzi esaldi gakoak

#### *4.8.3. Bizikidetasunaren alde*

Irlanden arteko Bake Akordioek bi komunitateen (Kristau Katolikoak eta Protestanteak) arteko bizikidetasunaren aukera zabaldu zuen. Hau da, haien arteko harremanak eraikitzea, espazio komunak eratuz eta bizitza publikoa partekatuz. Kazetaritza piezak aukera honen alde edo kontra agertu daitezke. Beste kasu batzuetan kazetariak neutraltasuna mantenduko du edo, kasu batzuetan, ezingo da jakin zehazki ze jarrera duen bizikidetasunarekiko.

- Bai
- Ez
- Neutro
- Ezin

#### *4.8.4. Bizikidetasunaren aldeko jarrera baieztatzen duten hitz edo esaldi gakoak idatzi*

- Honi dagokion zutabearen idatzi esaldi gakoak.

#### *4.8.5. Nori eman atribuzioa*

Bake Akordio oro iritzi ezberdinak dituzten aldean arteko eztabaidaren ondorio dira. Aktore ezberdinek hartzen dutenez parte hitzarmenean, hedabideek (eta gizarteak orokorrean) horietako bati ematen dio protagonismo eta garrantzia handien, eztabaiden ondorioz lortuko den akordioaren eraikuntza haiei esleituz.

Ikerketa lan honetan, bake akordioen ardura momentu oro nori esleitzen zaion aztertuko da. Horretarako, gatazkan eta akordioen eztabaidan nagusi izan ziren aktoreak hartuko dira kontuan.

- Erresuma Batua
- Sinn Féin
- Unionistak
- Irlandar Errepublika
- Beste bat
- Ezin

#### *4.8.6. Jarrera baieztatzen duten hitz edo esaldi gakoak idatzi*

- Honi dagokion zutabearen idatzi esaldi gakoak.

#### 4.8.7. Ondorio ekonomikoak

Ikerketan ondorio ekonomikoen inguruko informazioa kontuan hartuko dela esaten denean zera adierazi nahi da: kazetaritza piezan Bake Akordioek Irlandan (bakar batean edo bietan) ekonomian eraginik izango duen aipatzea. Ekonomia berdin mantenduko dela baieztatzen bada *EZ* atalean sailkatuko litzateke, eta ondorio ekonomikoen inguruan ez bada ezer agertzen *EZIN*-en.

- Bai
- Ez
- Ezin

#### 4.8.8. Ondorio ekonomiko positibo/negatiboak

- Positibo  
Ondorio ekonomikoak positiboak direla esango da Irlandan (bien edo bakar baten) ekonomiak gorakada izango duela espero bada.

- Negatibo  
Ondorio ekonomikoak negatiboak direla esango da Irlandan (bien edo bakar baten) ekonomiak beherakada izango duela espero bada.

- Ezin

#### 4.8.9. Ondorio ekonomikoak, positibo edota negatiboak, baieztatzen duten hitz edo esaldi gakoak idatzi

- Honi dagokion zutabean idatzi esaldi gakoak.

## 5. Analisiaren emaitzak

Gradu Amaireko Lan honetan, lau hedabide ezberdinen 402 kazetaritza pieza aztertu dira guztira: *ABC* 60, *Egin* 66, *The Guardian* 65 eta *Irish Independent* 211. Hauek, arestian azaldu bezala, 1998ko Ipar Irlandako Ostiral Santuko Akordioak gertatu ziren egunetan idatzi ziren, apirilaren 3tik 18ra, hain zuzen. Argitalpenen azterketa honek azaleratzen ditu hedabide hauek gaia nola jorratu zuten erpin ezberdinak kontuan hartuta.

### 5.1. Eduki mota

Taula 1: eduki mota

	Politika	Bakea	Terrorismoa	Manifestazioa	Ekonomia	Hezkuntza	Beste	Guztira
ABC	73,3%	11,7%	6,7%	3,3%	0,0%	0,0%	5,0%	100,0%
Egin	69,7%	12,1%	6,1%	1,5%	1,5%	0,0%	9,1%	100,0%
Irish Indep.	68,2%	11,8%	10,4%	0,9%	1,9%	0,5%	6,2%	100,0%
The Guardian	64,1%	10,9%	9,4%	3,1%	1,6%	1,6%	9,4%	100,0%
Guztira	68,6%	11,7%	9,0%	1,7%	1,5%	0,5%	7,0%	100,0%

Iturria: autoreak egina.

Edukiari dagokionez, ez dago ezberdintasun nabaririk lau hedabideen artean. Ereku geografikoa eta hedabideen publiko potentzialak ezberdinak diren arren, laurak dute politika gai nagusi bezala. Politikari zuzendutako edukien ehunekoa, kasu guztietan %65a baino altuagoa da. *ABC* da eduki politikoari espazio gehien eskaini ziona kazetaritza piezen %73arekin eta *The Guardian*, berriz, eduki politikoa gutxien jorratu zuena, argitalpenen %65arekin.

Bakeak, edukiaren gai nagusitzat hartuta, nolabaiteko papera jokatu du hedabideen edukietan, komunikabide denetan edukiaren %12aren inguruan kokatuz. Hala ere, kontuan izanda kazetaritza lanen testuingurua bake akordio batzuk direla, nabarmena da oso bakeak, eduki mota bezala ulertuta, izandako protagonismo gutxia. Politikak izandakoarekin konparatuz gero, batez ere.

Politikaz eta bakeaz gain, terrorismoak eta manifestazioek haien lekua izan zuten *ABC*-n, gutxi izan arren. Lanean aurkeztutako eduki motez gain (ikus *Metodologia*) beste esparru batzuk jorratu zituzten Madrilgo hedabidean: demografia eta gatazka. Gatazka bezala kodetu da apirilaren 13an argitaratutako pieza (Eranskina 1). Bertan, Euskal Herrian garaian bizi zen gatazka armatua eta Ipar Irlandan bizitakoa alderatzen dira, eta haien atzean dauden arrazoiak ezberdinak direla baieztatu.


*Eginen* kasuan, politikaz eta bakeaz gain, bestelako edukiak dira nabarmen, lana eraterakoan kontuan hartu ez zirelako eta ia hamarretik bat direlako. Beste horietatik hiru laurden presoenginguruko kazetaritza lanak dira. *Eginen* izaera independentista eta ezkertiarra kontuan izanda, zentzuzkoa da presoenginguruko edukiak bere pisua izatea Ipar Irlandako Bake Akordioenginguruan. Aipatzekoa da baita ere, *ABC*k ez bezala, ekonomia jorratzen duela bere edukietan egunkari euskaldunak, ehunekoa oso baxua izan arren.

Gradu Amaierako Lan honetan ikertutako bi egunkari anglosaxoiei dagokienez, *The Guardian*ek zein *Irish Independent*ek antzeko pisua eman diete aztertutako eduki mota ezberdinei haien argitalpenetan. Ezberdintasunik aipagarrienak dira ekonomiarik eta manifestazioei emandako pisua. Erresuma Batuko egunkariak manifestazioei toki gehiago eskaini die, %3, *Irish Independent*ek baino, %1 soilik. Ekonomian, kontrara, Irlandako hedabideak leku handiagoa eskaini dio *The Guardian*ekin alderatuz gero.

*The Guardian*en bestelako edukiek haien lekua izan dute, presoak eta kazetaritza besteengandik gailenduz. Kazetaritzaren inguruko edukietan akordioa kazetariak eta hedabideak nola jorratzen duten eta zer atentzio eskaintzen dioten azaleratzen da batez ere. Nabarmentzekoa da, baita ere, krimena era orokorrean jorratu egiten dela, arreta terrorismoan soilik ez jarritz.

Manifestazioak bezala, hezkuntzak duen presentzia *Irish Independent* hedabidean murriztua da oso. Bestelako edukiek pisu handiagoa dute Dublingo hedabidean. Hala nola, 30 urte iraun zuen gatazka bera, presoak edota gizartea. Azken hauek bestelako edukien ia erdia dira (13 piezatik 6).


Grafikoa 1: piezen edukia denboran zehar ABC



Iturria: autoreak egina.

Politika izan zen bi asteetan zehar eduki nagusia egunero; apirilaren 3an izan ezik, non, terrorismoaren inguruko albiste bat argitaratu zen soilik. ABC egunkarian bakeak izandako tokia denboran zehar lotura zuzena du Ostiral Santuko Akordioaren hitzarmenarekin. Izan ere, apirilaren 11n egunkaria argitaratu ez zenez, hitzarmenaren osteko lehen argitalpena apirilaren 12an izan zen. Bakeak, eduki mota bezala, apirilaren 12an eta beste bi egunetan zehar mantendu zen egunkari madrildarraren orrialdeetan, baina horren ostean politikak hartu zuen berriz edukien osotasunaren lekukoa.

Grafikoa 2: piezen edukia denboran zehar Egin




Iturria: autoreak egina.

Edukiek denboran duten iraunkortasunari dagokionez, beste hedabideetan gertatzen den modura, politika da denboran mantentzen den eduki nagusia era argi batean. Halere, Eginen kasuan, eta ABC-k ez bezala, bakearen inguruko edukiak denboran zehar gehiago

mantendu ziren, Ostiral Santuko Akordioak sinatu baino egun bat lehenago hasiz, apirilak 10, eta bost egunetan zehar edukia orrialdeetan mantenduz.

Aipatzekoa da baita ere, eta beste behin ABCrekin konparaketa eginez, terrorismoaren inguruko edukiak denboran sakabanatuago aurkitzen direla. Izan ere, ehunekoak oso antzekoak izan arren, Madrilgo egunkariaren kasuan denbora tarte zehatz batean pilatzen dira kazetaritza piezak, *Eginen* gertatzen ez dena.

Grafikoa 3: piezen edukia denboran zehar *The Guardian*




Iturria: autoreak egin.

Arestian aipatu bezala, lau egunkarietan politika da eduki nagusia hamabostaldian zehar. Halere, *The Guardian* da konstante hau apurtzen duen hedabide bakarra. Izan ere, apirilaren 14an manifestazioen inguruko edukiak dira nagusi, politikaren hegemoniari eten bat jarritz. Honen azalpena da *Apprentice Boys* izeneko erakunde protestante baten urteroko mobilizazioa da, eta 1998ko urtean eremu katolikoetatik ez igarotzeko erabakia. Gai hau hain garrantzitsua izan zen egunkari britaniarrarentzat non editorialera eraman zuen (Eranskina 2).



Grafikoa 4: piezen edukia denboran zehar Irish Independent



Iturria: autoreak egina.

Azkenik, *Irish Independent* komunikabidea izan zen hamabost egun hauetan zehar politikaz gain beste eduki motei jarraipen handiena eman ziena. Bakearekin lotura zuzena zuten edukiak akordioa sinatu baino egun bat lehenago eta apirilaren 16ra arte mantendu ziren egunkariaren orrialdeetan. Hortaz gain, terrorismoak nolabaiteko jarraipena du denboran zehar. Honen arrazoa, talde armatuak Irlandako Errepublikan erasoak antolatzen zituztelako da. Ingalaterran ekintzak zituzten, baina ezin dira konparatu Irlandako irlan eginikoekin.

## 5.2. Rola, genero eta adina

Analizatutako kazetaritza piezen protagonisten soslaia zuzenki loturik dago eduki motarekin. Hori dela-eta, lau hedabideetan protagonisten rol nagusia politikoarena izan da; bai norbanakoa politikaren munduko norbait zelako (Tony Blair, Bertie Ahern, Gerry Adams eta abar), bai kolektiboa politikoa zelako, Sinn Féin alderdia edo Eusko Jaurlaritza, esaterako. Bere edukietan protagonista politikoren bat gehien izan duen hedabidea ABC da, piezen %73.33rekin. Ondoren, *Irish Independent*, *Egin* eta *The Guardian* datoz, %70.62, %68.18 eta %64.62arekin, hurrenez hurren.

Taula 2: protagonisten rola

	Politikoa	Herritarra	Talde terrorista	Erakundea	Apaiza	Beste	Guztira
ABC	73,3%	11,7%	5,0%	5,0%	3,3%	1,7%	100,0%
Egin	68,2%	6,1%	12,1%	4,5%	3,0%	6,1%	100,0%
Irish Indep.	70,6%	6,6%	6,6%	3,8%	4,7%	7,6%	100,0%
The Guardian	64,1%	12,5%	4,7%	6,3%	4,7%	7,8%	100,0%
Guztira	69,5%	8,2%	7,0%	4,5%	4,2%	6,5%	100,0%

Iturria: autoreak egina.

Eduki motetan bezala, protagonisten rolaren ehunekotan ez dago alde handirik lau hedabideen artean. Hala ere, talde terroristen kasuan, *Egin* egunkariak besteak ia bikoiztu (*Irish Independent*) eta hirukoiztu (*ABC* eta *The Guardian*) egiten ditu; izan ere, talde terroristak bere edukien protagonisten bigarren taldea osatzen dute.

Beste hiru komunikabideen kasuan, bigarren taldea herritarrek osatzen dute. Halere, aldeak daude baita hemen ere. Rol honek *ABC*-n eta *The Guardian*en ia *Irish Independent*en duen pisua bikoiztu egiten du. Lehenengo biak ehuneko hamabitik gertu daude esparru honetan, eta Irlandako hedabidean, aldiz, ez da ehuneko zazpira heltzen. Aipatzekoa da poliziaren rolak *Irish Independent* komunikabidean duen pisua. Egunkari honetan hamar aldiz agertzen baita protagonista bezala.

Protagonista norbanakoa denean, gutxi gorabehera kasuen erdia lau hedabideetan, gehiengo gizon heldua (ikusi *Metodologia*) da. Hala adierazten dute datuek. *ABC*ren kasuan, protagonisten %51.67a gizonetzkoa da eta %1.67a emakumezkoa. Soberan dagoen ehuneko protagonista kolektiboa bat delako da, eta hortaz, orokorrean, ez du generorik. Antzerako datuak dituzte beste hedabideek: *Egin*en gizonak %40.91 dira eta emakumezkoak %1.52; *The Guardian*en gizon protagonistak %47.69 dira eta emakumeak %6.15; eta, azkenik, *Irish Independent* egunkariaren kasuan, gizonak %52.13 dira eta emakumeak %3.79.

Protagonisten adinari dagokionez, lau hedabideetan dira helduak nagusi. *Egin*en izan ezik, helduak protagonisten %34.85 direla, beste hiru hedabideetan %50etik hurbil dabilta datuak. *Egin* da gazteei ahots gehien eman zien hedabidea, bere edukien %6.06tan baitira protagonistak, eta *Irish Independent*ek, aldiz, protagonismo gutxien eskaini ziena, %0.47arekin. *ABC*-n eta *The Guardian*en datua ehuneko hirutik gertu dago.

Adinekoen kasuan, berriz, gazteekin gertatzen zenaren aurkakoa gertatzen da; zeren, *Irish Independent* da protagonismo gehien eskaintzen dien hedabidea, protagonismoen %4.74arekin, eta hedabide euskalduna espazio gutxien ematen diona, %1.52. Beste bi hedabideak, gazteen kasuan bezala, %3tik gertu mantentzen dute adinekoen protagonismoa. Azkenik, *Irish Independent*ek haurrei protagonismoa ematen dien hedabide bakarra da, %0.47arekin.

### 5.3. Akordioekiko jarrera

Irlanden Ostiral Santuko Akordioek iritzi ezberdinak eragin zituzten garaiko gizartean, jendea eta hedabideak hauen alde edo kontra jarriz. Gradu Amaierako lan honetan ikertutako lau hedabideak, ideologia ezberdinak dituzten arren, orokorrean alde agertu ziren. Alabaina, ezezko jarrerek eta jarrera neutroek haien lekua izan zuten 1998ko

apirilean idatzitako orrialdeetan. *Irish Independent* hedabidea da lauretatik bakarra aztertutako denbora osoan zehar baiezko, ezezko eta jarrera neutroa mantendu zuena egun guztietan Bake Akordioekiko.

Taula 3: Akordioekiko jarrera

	Bai	Ezin	Neutro	Ez	Guztira
ABC	83,3%	10,0%	5,0%	1,7%	100,0%
Egin	72,7%	9,1%	12,1%	6,1%	100,0%
Irish Independent	53,6%	21,8%	17,1%	7,6%	100,0%
The Guardian	62,5%	14,1%	17,2%	6,3%	100,0%
<b>Guztira</b>	<b>62,6%</b>	<b>16,7%</b>	<b>14,5%</b>	<b>6,2%</b>	<b>100,0%</b>

Iturria: autoreak egina.

*ABC* egunkariak akordioei babeserik eman zien guztiz. Izan ere, edukien %83.33a hauen alde agertzen da eta bi asteetan zehar mantendu egiten da aldeko jarrera hau. Babesaren momenturik gorena apirilaren 12 eta 14 bitartean da, baina kontuan izan beharra dago egun horien aurretik sinatu zela Ostiral Santuko Akordioa. Hortaz, baizko gehiago dago eduki gehiago dagoelako.

Baiezkoaren alde agertzeko, Espainiako egunkariak zenbait formula erabiltzen ditu bere testuetan zehar. Batzuetan zuzenean egiten du akordioaren alde haien beharra azpimarratuz: "obligadas a producir un acuerdo a más tardar el jueves para poner fin a una violencia que en los últimos 30 años ha causado más de 3.000 muertos" (Eranskina 3) edota "Según parecía ayer el unionismo, una vez más iba a frenar un acuerdo que llevase la paz al Ulster" (Eranskina 4). Beste kazetaritza pieza batzuetan akordioaren aldeko aktore nagusi baten lana goraiatzeko du kazetariak, adieraziz, nolabait, akordioak aurrera ateratzea garrantzi handiko zerbait dela; hauek lortzeko lan handia egin behar den arren. Hau apirilaren 9ko albiste batean aurkitu daiteke (Eranskina 5), non behin eta berriz Tony Blair-en lana goraiatzeko den: "Sinn Féin estima que sólo Tony Blair puede lograr un acuerdo" edota "maratónica ronda de conversaciones".

Bake Akordioaren aurkako pieza bakarra aurkitu daiteke *ABC*-n apirilaren 3tik 18ra. Bertan, akordioa onartuz gero Ipar Irlandako politika beste aktore baten pean egongo dela ulertzerik ematen da: "La campaña del No está centrada en la advertencia de que, si el acuerdo va adelante, Irlanda entrará a participar en el Gobierno del Ulster a través de las entidades Norte-Sur" (Eranskina 6).

Neutraltasunak, aldeko jarrerarekin konparatuta oso murriztua izan arren, bere lekua du baita *ABC*-ren orrialdeetan, eduki guztiaren %5. Jarrera hau nabaria da aldekoen eta kontrakoen iritziak plazaratzen dituztenean kazetariak eta bata edo bestearen alde jartzen ez denean (Eranskina 7). Gainera, hamar piezetatik batean ez da aurkitu akordioekiko jarrera zehatzik.

*Egin*-en kasuan, aldeko iritziak nagusiak izan arren %72.73 batekin, lau hedabideetan akordioaren aurkako pieza gehien argitaratu zituena da, *Irish Independent*-ekin batera, hauek guztiaren %7.58 izanik. Hala ere, aurkako jarrera hau ez zen plazaratu Ostiral Santuko Akordioak sinatu ziren egunean ez inguruko hiruzpalauetan. Akordioari ezezkoa adierazteko, iturri ezberdinen aipuak baliatzen ditu egunkari euskaldunak: "Gary McMichael, advirtió ayer de que no se podrá firmar ningún acuerdo de paz para el norte

si lleva implícito el <<caballo de Troya>> de la unificación con el sur de la isla" (Eranskina 8). Hitzak zuzenean kazetariarenak ez izan arren, kazetariaren lana da zer aipu erabili eta zer utzi informaziotik at. Hortaz, zilegi da aurkako jarreratzat hartzea aurreko albiste zatia.

*Eginen* edukien %12.12a akordioekiko neutro agertzen da. Pieza hauek hitzarmena sinatu zen egunaren inguruan ematen dira bereziki, gertaerarekiko nolabaiteko objektibotasuna egon bazegoela erakutsiz. Neutraltasun hau adierazteko, kazetariak albiste berdinean bi aldeei ematen die hitza bata bestearen gaineratik jarri gabe: "El primer ministro, Tony Blair, está <<realmente convencido>> de que se puede alcanzar un acuerdo a tiempo" eta "Sin embargo, los observadores se muestran pesimistas frente a la posibilidad de alcanzar el acuerdo tras el desmarque protagonizado por el UUP" (Eranskina 9).

Aldeko jarrera adierazteko asmoz, egunkari euskaldunak formula ezberdinak erabiltzen ditu. Haien artean aurka agertzen direnak barregarri uzten saiatzea edo prozesuari dion miresmena plazaratuz. "Adamsek, esate baterako, ustezko eraso ahalegina kritikatu zuen, lehergailu mugimendua <<estupidoa>> zela gaineratuz" (Eranskina 10) eta "Gatazka politiko gogorrari irtenbidea ikusten zaiolako poza sentitzen da Euskal Herrian, baita inbidia pixka bat ere" (Eranskina 11) adibideetan ikusi daitekeen bezala. Gainera, edukien %9.09ak ez du akordioen inguruko jarrerarik erakusten.

*The Guardian* egunkaria akordioen alde agertzen da %63.08an. Hau argi gelditzen da akordioen bozketen inguruan idazterakoan kazetariak erabiltzen dituen formulengatik: "Voters in the Irish Republic are overwhelmingly prepared to abandon the country's historic claim to Northern Ireland in favour of peace on the island" (Eranskina 12). Horrelako adierazpenak egiterakoan egunkari britaniarrak argi utzi nahi du herritarrak guztiz ados daudela akordioekin; eta, beraz, onena hauen alde egitea dela. Beste eduki batzuetan, "better future" (Eranskina 13) bezalako esamoldeak erabiltzen ditu akordioekin lortuko den gizarte definitzeko.

Akordioen aurkako jarrera %6.15 izan arren, jarrera neutroa nabarmena da edukien %16.92 beregain harturik. Denboran zehar sakabanatuta egon arren, neutraltasun dentsitate handiena Ostiral Santuko Akordioak sinatu eta egun gutxira biltzen da. "The deal triggered an emotional rollercoaster of reaction, from euphoria to trepidation and suspicion" (Eranskina 14) bezalako esaldiak erabiltzean aldeko eta kontrako jarrerarekin distantzia ezartzen du egunkariak, akordioa onuragarritzat edo kaltegarritzat baloratu gabe. Bestetik, edukien %13.85ak ez du aldeko, kontrako edo jarrera neutrorik.

Azkenik, *Irish Independent* egunkariak, eduki gehienetan, %53.55ean, alde agertu arren, arestian aipatu bezala analisiak hartzen duen denbora tarte osoan zehar kontrako eta jarrera neutralea mantentzen duten edukiak jasotzen ditu. Lau hedabideetan akordioekiko jarrerarik adierazten ez duten edukien ehunekorik altuena du *Irish Independent* egunkariak %21.8arekin.

Aurkako jarreran, Irlandako hedabidea da nagusi *Eginekin* batera %7.58aren edukiarekin. "The principles of peace and democracy have at last prevailed" (Eranskina 15) bezalako esaldiek aldeko iritzi argia adierazten duten arren, "<<If Trimble and his kind sell out Ulster, people will know there is nothing left to lose, there will be war>>" (Eranskina 16) aipuak aurkako jarrera adierazteko baliatzen ditu egunkariak.

Neutraltasunean mantentzen den edukia %17.06a da. Horretarako, "At the end of the day agreement in the talks was a matter for the participants at Stormont - they would determine the outcome" (Eranskina 17) eta "nobody could be quite sure how or if a breakthrough to the present impasse would emerge" (Eranskina 18) bezalako esaldiak erabiltzen ditu kazetariak.

## 5.4. Komunitateen arteko bizikidetasuna

Taula 4: bizikidetasunarekiko jarrera

	<b>Ezin</b>	<b>Bai</b>	<b>Ez</b>	<b>Neutro</b>	<b>Guztira</b>
ABC	35,0%	41,7%	15,0%	8,3%	100,0%
Egin	60,6%	27,3%	12,1%	0,0%	100,0%
Irish Independent	48,8%	32,7%	13,3%	5,2%	100,0%
The Guardian	28,1%	39,1%	21,9%	10,9%	100,0%
<b>Guztira</b>	<b>45,4%</b>	<b>34,2%</b>	<b>14,7%</b>	<b>5,7%</b>	<b>100,0%</b>

Iturria: autoreak egina.

Komunitateen arteko bizikidetasunaren aldeko iritziak kontrakoei eta neutraltasunari gailentzen zaizkien arren lau hedabideetan, nabarmentzekoa da gaiaren inguruko *framerik* ez duten edukien kopurua handia dela oso. Izan ere, *ABC*-ren edukien %35a, *Eginen* %60.61a, *The Guardianen* %29.23a eta *Irish Independenten* %48.82a ezin da atal honen barnean sailkatu.

*ABC* egunkaria era argian agertzen da bi komunitateen arteko bizikidetzaren alde, edukien %41.67arekin. Kazetaritza piezetan zehar esaldi jakin batzuk tartekatzen dira komunitateen arteko harreman onak eta etorkizun komun bat eratzeko aukerak adierazteko: "Coros de niños protestantes y católicos cantaban Till Tell My Ma, una vieja canción callejera de Belfast" (Eranskina 19). Edonola ere, *ABC*-ren orrialdeetan barrena bizikidetasunaren kontrako jarrerak topa daitezke, edukiaren %15a, hain zuzen. Neutraltasunak ere badu bere lekua Madrilgo egunkarian, guztiaren %8.33a beregan hartuta.

*Egin* kazetaren kasuan azpimarratzekoa da oso neutraltasun eza eta *framet*ik at geratzen den kazetaritza piezen kopurua, guztiaren %60.61a, arestian aipatu bezala. Bizikidetasunaren aldeko iritziak testuen %27.27 osatzen dute eta aurkakoeak %12.12a. "Sería el de una Irlanda unida, con espacio para todos los actores sociales y políticos" (Eranskina 20) edo "Irlanda bateratuan guztiok dugu tokia eta primeran legoke protestanteek ere gure proiektuekin bat egingo balute" (Eranskina 21) bezalakoak baliatzen dira, alde batetik, etorkizun onena bizikidetasunean oinarritutako nazioa dela; eta, bestetik, Ipar Irlandako biztanleek elkarbizitza honen alde daudela adierazteko. Kontrara, protestanteen eta katolikoen arteko harremana ezinezkoa dela jaso egiten du irakurleak, batez ere, komunitate arteko hilketen albisteetan (Eranskina 22).

*The Guardianen* jarrera bizikidetasunarekiko *ABC*-k duenarekin alderatu daiteke. Izan ere, ingelesez kasuan, aldeko jarrerak ia kontrakoak bikoizten ditu, %38.46 eta %21.54rekin, hurrenez hurren. Neutraltasunak bere lekua du baita Manchesterreko orrialdeetan, edukiaren %10.77a bertan sailkatu baitaiteke. "The document was believed to make propositions for [...] the equality agenda." (Eranskina 23) eta "The agreement corresponds to what is required - a model for the management of differences rather than their elimination." (Eranskina 24) argi uzten dute egunkariak komunitateen arteko bizikidetasunean eta berdintasunean sinesten duela; eta horretarako bidea Bake Akordioetan dagoela erroturik baieztatzen.

*Irish Independenten* "was intended as an optimistic note for the future, a time when both communities could mix their cultures and celebrate their differences" (Eranskina 25) bezalako bizikidetasunaren aldeko esaldiek kazetaritza piezen %32.7an aurkitu daitezke. Irlandako Errepublikan argitaratutako hedabideak bizikidetasunaren alde argi agertzen da, zeren, "without any direct contact between unionists and republicans" (Eranskina 26)

bezalakoak soilik edukiaren %13.27an aurkitu daitezke. Neutral mantentzen diren iritziak elkarbizitzaren inguruan are gutxiago dira, %5.21 batekin.

### 5.5. Akordioaren atribuzioa

Ostiral Santuko Bake Akordioetan hainbat aktorek hartu zuten parte. Egunkari bakoitzak horietako bati besteei baino garrantzi handiagoa esleitu zion akordioak lortzerako orduan. Kazetaritza piezaren arabera kazetariak aktore bakar bati, edo bati baino gehiagori, esleitu zion atribuzio hau. *Eginen* izan ezik, Erresuma Batuak jokatu zuen hedabideentzat akordioak aurrera eramateko arduraren rola.

Taula 5: akordioen atribuzioa

	Irish Indep.	The Guardian	Egin	ABC	Guztira
Denei	0,6%	2,0%	4,3%	5,2%	2,3%
Erresuma Batua	34,4%	47,1%	21,7%	27,6%	33,3%
Irlandako Errepublika	32,5%	11,8%	15,2%	12,1%	22,7%
Sinn Féin	6,5%	5,9%	26,1%	13,8%	10,7%
Unionistak	5,2%	13,7%	8,7%	17,2%	9,4%
Amerikako Estatu Batuak	14,9%	11,8%	15,2%	13,8%	14,2%
Europar Batasuna	0,0%	2,0%	2,2%	0,0%	0,6%
IRA	2,6%	0,0%	4,3%	5,2%	2,9%
Ian Paisley	0,6%	0,0%	0,0%	1,7%	0,6%
SDLP	1,9%	3,9%	0,0%	1,7%	1,9%
Eliza	0,6%	0,0%	0,0%	0,0%	0,3%
Ipar Irlandako Emakumeen Koalizioa	0,0%	2,0%	0,0%	0,0%	0,3%
Herritarrak	0,0%	0,0%	2,2%	0,0%	0,3%
Jainkoa	0,0%	0,0%	0,0%	1,7%	0,3%
Guztira	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%

Iturria: autoreak egina.

*ABC* egunkarian %27an agertzen da Erresuma Batua akordioen arduradun gisa atribuzioa duten edukietan. Izan ere, kazetaritza piezen %31.67ak ez du atribuziorik erakusten bere testuetan. Erresuma Batua, Tony Blair buru dela, "Unos de los obstáculos mayores para un acuerdo de paz en el Ulster ha sido eliminado por el primer ministro Tony Blair" (Eranskina 27) bezalako esaldiekin batera agertzen da egunkariaren argitalpenetan. Unionistak dira bigarren atribuzioen %17arekin. Amerikako Estatu Batuek jokatutako papera, Espainiako egunkariarentzat gutxienez, nabarmena izan zen oso; akordioak aurrera eramatearen ardura %14an esleituz. Azken datu honen atzean dago George Mitchell, AEBtako senataria, akordioak bideratzeko bilkuren presidentea izatea.

Akordioen gidaritza, halere, aktore bati baino gehiagori esleitzen dio kazetariak eduki bakoitzean. Gidaritza konbinazioetan ohikoena *ABC*-ren kasuan Erresuma Batua eta Irlandako Errepublika bateratzea da, edukien %8.33an agertuz.

Arestian aipatu bezala, *Egin* da lau hedabideetatik Erresuma Batuari akordioen lorpena gutxien esleitzen diona, atribuzioen %22arekin. Aldiz, euskal egunkariak Sinn Féin alderdi nazionalistari ematen dio garrantzi gehien, %26arekin. Alderdiari akordioen atribuzioa esleitzeko hurrengo formulak erabiltzen ditu, besteak beste: "Errepublikarrek lanean gogoz jardun dute, etengabe, zalaparta handirik atera gabe, eta jarrera baikor horrek bere eragina izan du dagoeneko hiritarrengan" (Eranskina 28) edo "Sinn Féinekin hartu zuen konpromisoari zor zaio, hein handian, jarrera aldaketa" (Eranskina 11).

Akordioen gidaritzan atribuzio jakinik ez duen edukia, totalaren %43.94a da. Gehien errepikatzen den gidaritza konbinazioa Erresuma Batua eta Irlandako Errepublikaren artekoa da, kazetaritza piezen %4.55ean azalduz.


*The Guardian* egunkari britaniarrea era argi batean ematen zaio Erresuma Batuari Bake Akordioak ematearen esleipena. Izan ere, atribuzioen %47a Tony Blairren gobernuari daude bideratuta. "Tony Blair is on stand-by to fly to Belfast as the parties involved in the multiparty talks on the Northern Ireland's future indicated they wanted him on hand to settle the outstanding difficulties" (Eranskina 29) bezalakoak erabilita, *The Guardian*eko kazetariak bake prozesuan Gobernu Britaniararen beharra azpimarratzen dute.

Irlandako Errepublikari ematen zaion protagonismoa akordioekiko lotura zuzena du Erresuma Batuarekin batera edukien %7.69an agertzen baita. Hortaz gain, azpimarratzeko da, baita ere, Manchesterren argitaratzen den hedabideak Unionistei ematen dien garrantzia. Izan ere, bigarrena da atribuzioetan eta edukien %7.68tan talde honi bakarrik esleitzen zaizkio Bake Akordioen aurrerapenak.

*Irish Independent*en kasuan, Ostiral Santuko Bake Akordioen lorpena bi protagonista nagusiri esleitzen zaizkie: Erresuma Batuari, atribuzioen %34arekin, eta Irlandako Errepublikari, %32rekin. Hauen garrantzia Irlandako hedabidearentzat argi gelditzen da atribuzio konbinatuei erreparatzerakoan. Erresuma Batua eta Irlandako Errepublika, biak batera, akordioen gidaritzat duten edukiak guztiaren %15.64 dira. Ehunekoak altua da oso kontuan hartuta edukien %50.71k ez duela atribuziorik egiten.

"Against all the odds, Bertie Ahern and Tony Blair appeared last night to be edging the North's parties towards agreement" (Eranskina 30) eta "all the indications are that Tony Blair and himself (Bertie Ahern) will be required in person to push the parties the final few yards to the finish" (Eranskina 31) dira Erresuma Batuaren eta Irlandako Errepublikaren aldeko adibide argienak. Bertan, bi estatu hauen presidenteen buruzagitza akordioekiko azpimarratzen da.

Grafikoa 5: atribuzio kopurua denboran zehar



Iturria: autoreak egina.

Denboran akordioak sinatu ziren egunera heldu ahala, lau hedabideetan atribuzioen gorakada bat dago. Honek bi arrazoi ditu. Alde batetik, edukien kopurua handiagoa izan zen hitzarmenaren inguruko egunetan, eta horregatik atribuzioen kopurua igo egiten da.

Bestetik, akordioa aurkeztu bezain laster hedabideek dominak jarri zituzten haien ustetan akordioak erraztu zituztenei.

Hori dela medio, apirilaren 12an *ABC* egunkarian AEBren papera goraiatzeko duen hurrengo esaldia topa daiteke: "Pero la presión directa británica e irlandesa y la norteamericana por encima de ambas ha hecho entrar por el aro a los extremistas" (Eranskina 32). *Eginen* Sinn Féin alderdiari eginiko atribuzioak topa daitezke apirilaren 13ko portadan: "<<Sinn Féinek eta besteek egindako ahalegina>> azpimarratu zuen." (Eranskina 33). Adibide hauekin, eta arestian ikusitako guztiekin, adierazi nahi da nola hitzarmenaren inguruko egunetan era esplizituagoan jartzen diren dominak; era zuzenean baieztatzen baita zer alderi esker lortu den akordioa.

Akordio batera heltzearen euforia bukatzean, baina, eduki kopurua jaistearekin batera atribuzioen esleipena bortizki doa behera lau hedabideetan. *The Guardian* da hedabide bakarra non, ikerketaren azken egunetan, goranzko joera topa daitekeen.

### 5.6. Akordioen eragin ekonomikoak

Akordioek eragingo zituzten ondorio ekonomikoak hedabideek ez zizkieten arreta handirik jarri. *ABC*-k 60 albistetik 3tan soilik aipatzen ditu ondorio ekonomikoak, guztiak positiboak. Bertan, akordioak nazioarteko inbertsioak erakarriko dituela adierazten da: "este pacto se verá seguido de mayores ayudas e inversiones de Estados Unidos a Irlanda del Norte" (Eranskina 34). *Eginen* kasua oso antzekoa da, 66 piezatik bitan akordioak Ipar Irlandarentzat ondorio ekonomiko positiboak izango zituela aipatuz.

Hedabide anglosaxoietan ondorio ekonomikoen presentzia, murriztua izan arren, *ABC* eta *Eginena* baino altuagoa da. *The Guardianen* edukien %16.9ak ondorio ekonomikoak egongo direla baieztatzen du. %1.5ak, bestalde, akordioak ez duela ekonomian inpakturik izango dio. Baiezkoen artean, kazetaritza pieza baten arabera, ondorio hauek negatiboak izango dira, hurrengoa baieztatuz: "There will be a downsizing of Britain's financial support over time, so the region will have to pull together and look south as well as east if it is not to suffer peripheralisation" (Eranskina 24).

*Irish Independent* hedabideak, ondorio ekonomikoak jaso egiten dituen arren, soilik %5an baieztatzen du eragin ekonomikorik izango duenik. Hauetatik bakarra da negatiboa; beste guztiak, akordioak Irlandako (iparraldea zein hegoaldea) ekonomian ondorio positiboak izango dituela ulertarazten dute.

### 5.7. Eduki esanguratsuena

Budd-en eskala moldatua erabilita (ikus *Metodologia*) egunkari bakoitzaren kazetaritza piezarik esanguratsuena zein izan zen jakin ahal izan da, ezaugarri jakin batzuk kontuan izanda. *ABC*ren kasuan apirilaren 12ko azalean agertzen den albistea da (Eranskina 35). Bertan, Ostiral Santuko Akordioak lortu direla argitzen da; hortaz, zentzua du nabarmenena izatea. Albistean kazetaria akordioaren alde agertzen da "histórico" bezala definituz. Akordioaren lorpena, bestetik, ez dio aktore jakin bati esleitzen soilik, baizik eta denei.

*Eginen* kasuan, apirilaren 10ean topatzen da pieza hau (Eranskina 21). Kasu honetan, Sinn Féinen gazteriaren kideei egindako elkarrizketa bat da. Bertan, akordioen aldeko jarrera agertzen da, "Ahalegin guztia egin dugu horrek funtziona dezan eta orain da horretan jarraitzeko garairik inportanteena. Desiatzen gaude konponbide erreala ikusteko"; bizikidetasunaren aldekoa, "Irlanda bateratuan guztiok dugu tokia eta primeran legoke protestanteek ere gure proiektuekin bat egingo balute"; eta, IRAri esleitzen zaizkio akordioen aurrera pausuak, "Su-etena egiten ari den bakarra IRA da, ez dago beste aldaketarik".



*The Guardian* egunkarian, apirilaren 4an, Tony Blairren komunikazio arduradunaren inguruko erreportajea argitaratu zen (Eranskina 36). Honen luzera dela-eta, edukirik esanguratsuen dela esan daiteke Budd-en metodo moldatua erabilia. Negoziaketen inguruan Erresuma Batuari eta Sinn Féini egiten die erreferentzia testuak eta akordioen alde agertzen da, baikorra izateko argudioak daudela baieztatuz.

*Irish Independent* hedabidearen kasuan, hainbat edukik puntuazio berdina dutenez, portadan kokaturik dagoena erabiltzea erabaki da. Izan ere, egunkariak azalera eramaten dute haientzat garrantzitsuenak diren edukiak. Apirilaren 16ko albistean (Eranskina 37), kazetaria akordioen alde agertzen da, "a huge number of voters north and south support the peace deal" argudiatuz. Herritarren nahien eta iritzien inguruko albistea izanik, ez da akordioen lorpenarekiko atribuzio zehatzik agertzen.

## 6. Ondorioak

Datuek garbi adierazten dute *Egin*, *ABC*, *The Guardian* eta *Irish Independent* Ipar Irlandako bake akordioen alde agertu zirela apirilaren 3tik apirilaren 18ra. Lau hedabideetan argitaratutako piezen erdia baino gehiago hauen alde agertzen da eta ez da ehuneko hogeira heltzen aurka agertzen direnen kopurua. Hortaz, baieztatu daiteke, ideologia politikoa eta testuingurua ezberdina izan arren, komunikabideak Ostiral Santuko Akordioekin bat egin zutela.

Irakurketa orokor bat eginez, nabaria da oso politikak berebiziko garrantzia izan zuela lau hedabideetan Ostiral Santuko Akordioak jorratzerakoan; bai eduki aldetik, bai protagonisten aldetik. Lau hedabideetan politikak horrelako garrantzi handia izateak azalpen argia du. Izan ere, lau hedabideek politikoen arteko negoziaketetan, haien adierazpenetan eta akordioak bermatzeko erreferendumean jarri zuten fokoa batez ere; aldean arteko desadostasunetan eta liskarrei arreta berezia jarritz.

Honek eragin zuen protagonistak, norbanakoak direnean, gizon helduak izatea; zeren akordioetan parte hartu zuten aktore nabarmenenak talde honetan sartzen ziren. Tony Blair, Bertie Ahern, George Mitchell, David Trimble eta Bill Clinton dira protagonista hauen adibide batzuk. Halere, ikerketa hasi aurretik emakumeei protagonismo handien emango zion hedabidea *Egin* izango zela pentsatzen zen arren, analisia egin ostean baieztatu daiteke hau ez zela horrela izan. Izan ere, euskal hedabideak soilik edukien %1.52an ematen die protagonismoa emakumeei; ehuneko benetan baxua. *The Guardian* izan da lau hedabideetan emakumeei protagonismo gehien eman dien egunkaria %6.15arekin. Hau gertatzen da egunkari britaniarrak Erresuma Batuko politikariei ematen zuelako protagonismo gehien bere edukietan, eta Mo Mowlan Erresuma Batuko Ipar Irlandarako arduraduna zen. Hortaz, emakumeen presentzia politikari honen protagonismotik dator.

Bizikidetasunaren kasuan, akordioekin gertatzen den modura, lau hedabideak alde agertzen dira. 402 kazetaritza piezak kontuan izanik, %34.2a bizikidetasunaren alde agertzen da eta %14.7a kontra. Beraz, akordioen eta bizikidetasunaren aldeko datuak ikusita, baieztatu daiteke aukeratutako lau hedabideek Ipar Irlandan bizi zen biolentzia arbuiaztatzen dutela.

Akordioen esleipenari dagokionez, ez da alde nabaririk somatzen hedabideen artean. Erpin honi dagokionez azpimarratu daitekeen alderik nabarmena *Egin*en kasuan Sinn Féinek ehuneko hogeia baino esleipen handiagoa duela da, beste hiru egunkarietan baxu mantentzen den datua izanik. Honek hasiera batean proposatutako ideiarekin talka egiten du. Izan ere, bere izaera Katolikoa zela-eta, *ABC* Sinn Féini garrantzi handia emango ziola uste zen. *The Guardian* eta *Irish Independent*en kasuetan baino garrantzi nabarmenagoa duen arren, ezin da esan esleipenen %13arekin garrantzi handia duenik.

Batez ere Erresuma Batuari emandako pisuarekin alderatuz gero, esleipenetan bikoizten baitu alderdi nazionalista.

Terrorismoak, talde terroristak dituen gatazka izanik, bere lekua izan du kazetaritza piezetan. *Irish Independent* izan da eduki honi leku gehien eskaini diona, eta *The Guardian* bigarrena puntu bateko ezberdintasunarekin. Hortaz, esan daiteke hasierako hipotesia partzialki bete egiten dela. Honen azalpena da, talde terroristen ekintzak Erresuma Batuan eta Irlandako Errepublikan zirela; horregatik, Euskal Herrian eta Espainian argitaratutako egunkarietan pisu gutxiago zuten, eragin zuzena ez baitzuten herritarrengan.

Azkenik, nabaria da oso ekonomiak ez zuela paper garrantzitsurik jokatu Ipar Irlandako bake prozesuan. Analizatutako erpin guztiak kontuan hartuta esan daiteke politikak eta komunitateen arteko ezberdintasunak (eta hauek gainditzea, noski) izan zirela *agenda setting*ean eragin zutenak; bestelako gaiak alde batera utziz.

## 7. Bibliografia

- Ardèvol-Abreu, A. (2015): *Framing o teoría del encuadre en comunicación. Orígenes, desarrollo y panorama actual en España*. Revista Latina de Comunicación Social, 70, or. 423-450.  
<http://www.revistalatinacs.org/070/paper/1053/23es.html> [Azken kontsulta eguna: 2021-12-14]
- Berriaren estilo liburua.  
<https://www.berria.eus/estiloliburua/eliburua/informazioa%20eta%20interpretazioa#48> [Azken kontsulta eguna: 2022-02-15]
- Blokemore, E. (2022). *What were the Troubles that ravaged Northern Ireland?*. National Geographic. <https://www.nationalgeographic.com/history/article/the-troubles-of-northern-ireland-history> [Azken kontsulta eguna: 2022-05-09]
- Caminos Marcet, J. M.; Armentia Vizuete, J. I.; eta Marín Murillo, M. F. (2013). *Los diarios vascos frente al terrorismo (1990, 2000, 2008 y 2009). Análisis de los editoriales sobre los atentados mortales de ETA*. Revista Latina de Comunicación Social. 68, 1-26.  
[http://www.revistalatinacs.org/068/paper/967\\_Bilbao/RLCS\\_paper967en.pdf](http://www.revistalatinacs.org/068/paper/967_Bilbao/RLCS_paper967en.pdf) [Azken kontsulta eguna: 2022-02-16]
- Casanova, Julián (2020). *Una violencia indómita*. Crítica.
- Entman, R.M. (1993): *Framing: toward clarification of a fractured paradigm*. Journal of Communication, 43(3), or. 51-58.  
<file:///C:/Users/mikel/Downloads/Dialnet-EncuadrosNoticiososLatentesBajoElParadigmaPositivi-4228809.pdf> [Azken kontsulta eguna: 2022-01-22]
- Fernandez, P.X. (2021): *Frantziako Tourra frantziar, espainiar eta euskal prentsan (1903); kazetaritza eta nazio-identitatea*. EHU/UPV. Leioa.
- Gov.uk . “The Belfast Agreement”. *Policy Paper*  
<https://www.gov.uk/government/publications/the-belfast-agreement> [Azken kontsulta eguna: 2022-05-09]

- Juaristi Larrinaga, P. (2003): *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. EHU/UPV. Leioa.  
<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15493/USWEB035407.pdf?sequence=1&isAllowed=y> [Azken kontsulta eguna: 2022-01-22]
- McGarry, F. (2002). Irish Newspapers and the Spanish Civil War. *Irish Historical Studies*, 33(129), 68–90. <http://www.jstor.org/stable/30006956> [Azken kontsulta eguna: 2022-02-15]
- McKittrick, D. eta McVea, D. (2012). Making sense of the troubles: a history of the Northern Ireland conflict. Penguin
- McLaughlin, D. et al (2018). “October 1968: The birth of the Northern Ireland Troubles?”. *BBC*. <https://www.bbc.com/news/uk-northern-ireland-foyle-west-45625222> [Azken kontsulta eguna: 2022-05-09]
- Mercado Sáez, M.T. eta Sánchez Castillo, S. (2013): *Encuadros noticiosos latentes bajo el paradigma positivista. Propuesta de análisis factorial exploratorio*. Investigar la Comunicación hoy. Revisión de políticas científicas y aportaciones metodológicas, or. 227-294. Universidad de Valladolid. Valladolid.  
<file:///C:/Users/mikel/Downloads/Dialnet-EncuadrosNoticiososLatentesBajoElParadigmaPositivi-4228809.pdf> [Azken kontsulta eguna: 2022-01-22]
- Northern Ireland Assembly. “The Belfast Agreement/Good Friday Agreement 1998”  
[https://education.niassembly.gov.uk/post\\_16/snapshots\\_of\\_devolution/gfa#:~:text=The%20Belfast%20Agreement%20is%20also,Northern%20Ireland%20should%20be%20governed.](https://education.niassembly.gov.uk/post_16/snapshots_of_devolution/gfa#:~:text=The%20Belfast%20Agreement%20is%20also,Northern%20Ireland%20should%20be%20governed.) [Azken kontsulta eguna: 2022-05-09]
- Pizarroso, A.(2010). *El periodismo en el primer tercio del siglo XX*. Arbor 186 (extra): 45-54.  
